

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Ondarroako Udala****Erabilpen publikoko espazioetan terrazak jartzea arautzen duen Ordenantza aldaketaren behin-betiko onspena eta testu bateratuaren argitalpena.**

Erabilpen publikoko espazioetan terrazak jartzea arautzen duen Ordenantzaren aldaketa, 2019ko maiatzaren 9ko Udalbatza Osoak hasiera batean onetsia, jendaurreko epean zehar aurkeztu ez direnez erreklamazioak edo iradokizunak, behin-betikotzat hartua da Ordenantza horren onspen erabakia, berau, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikulua betez, testua oso-osorik iragarriko da aldaketak sartuta daudelarik.

Ondarroan, 2019ko uztailaren 8an.—Alkatea, Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga

**ERABILPEN PUBLIKOKO ESPAZIOETAN TERRAZAK JARTZEA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA****I. KAPITULUA****HELBURUA, DEFINIZIOA ETA APLIKAZIO-ESPARRUA****1. artikulua. — Helburua**

Ordenantza honen bitartez arautegi bat finkatu nahi da, araubide tekniko eta juridiko bat kalean terrazak ipintzeko eta baita ere, eguzkitakoak, toldoak, albo babesak, argiak, eta horrelakoak.

2. artikulua. — Definizioa

Terrazatzat jotzen da ostalaritzaren arloko jarduera legeztatu bati, behin-behineko osagarri gisa balio zaizkion mahaiak, aulkiak eta aldi baterako instalazio finko edo mugikorren multzoa (mahaitxo, kupelak, banku luzeak...).

3. artikulua. — Aplikazio-esparrua

Erabilera publikoko espazio (bide publiko, espazio libre, landare gune eta beste) guztietan aplikatuko da ordenantza, titulartasuna publikoa edo pribatua den kontuan izan gabe. Unean uneko egoerak eta indarrean dagoen planeamenduak finkatuko dute erabilera publiko hori zer den.

Edonola ere, hiru gune bereizten dira kaleko terrazen ezaugarriei dagokienean:

- 1) Alde Zaharra: erabil daitezkeen estalkiak eguzkitako ez finkoak izango dira, 4. artikuluan jarritako salbuespenekin.
- 2) Itsas-aurre: erabili daitezkeen estalkiak eguzkitako ez finkoak izango dira, dagoeneko instalatuta dauden egitura finkoak salbuetsita.
- 3) Udalerriko gainerako lekuak: egitura finkoak baimentzen dira tokia izanez gero.

Kasu guztietan Udalak proiektuak onartu beharko ditu. Onarpen honetarako kontutan izango du estalkiok zein gainerako terrazetarako elementuak inguruko arkitektura, kolore, egitura, material eta bolumenekin bat etorri behar direla.

4. artikulua. — Salbuespenak

2. artikuluan emandako definizioaren barruan egon badaitezke ere, ondoko baldintzak betetzen dituzten instalazioak arautegi honetatik kanpo egongo dira:

- a) Udalaren administrazio emakida bat duelako egiten ari den jarduera baten osagarri direnean.
- b) Noiz edo noiz, herrian ospatutako jaialdietarako ipintzen badira, eskumena daukan udal agintaritzak finkatu behar ditu egunak eta baldintzak horrelako kasuetan.

Alde Zaharrean jarri arren terraza, egitura finkoak erabil daitezke estalkietan baldin eta plaza edo zabalgunen batean badaude terraza jartzen duten establezimenduak eta terraza bera.

II. KAPITULUA**INSTALAZIOAREN BALDINTZAK****5. artikulua. — Muga orokorrak**

1. Toki hauen aurrean ezin izango dira ipini: oinezkoen pasabideak eta larrialdietarako irteerak, etxeetako eta lokal komertzialetarako atariaren aurrean, lokal publikoetako larrialdi irteeren aurrean, sekula ere ez.

2. Baimendutako terrazetan, debekatuta dago instalatzea mota guztietako soinu iturriak (musika, telebista, girotzea eta abar), baita zuzeneko musikariek ere, berariazko baimena denean izan ezik.

**6. artikulua. — Alboko babesak**

1. Instalazioaren alde bietan babesak jartzea komeni da ingurua itxita lagatzeko eta itsuek arazorik izan ez dezaten.
2. Zirkulazio-guneetan instalatutako terrazetan derrigorrezkoa izango da babes perimetralak jartzea.
3. Alboetako babesak, ipintzekotan, mugikorak izan behar dira, gardenak edo itsuak, eta beti inguruko baldintzetara egokitu.
4. Zabalera baimendutakoa baino handiagoa ezin da izan, eta bere altura metro bat (1) eta metro bat eta erdi (1,50) bitartekoa izango da.

7. artikulua. — Behin-behinean estalitako espazioak

Aurreko artikuluan mugatutako luze-zabalerako eremua estali ahal da, estaldura behin-behinekoa eta errez desmuntatzekoa bada, esate baterako, eguzkitakoak, fatxadan tinkatzeko toldoak.

8. artikulua. — Fatxadan tinkatzekoak

Toldoak jarri ahal dira fatxadatik tinkatuta, horretarako, baimena eskatzean krokis bat aurkeztu beharko da instalazioaren neurriak, ezaugarri teknikoak eta estetikoak adieraziz. Udalaren baimenaz gain Etxejabeen Komunitateak ere bere baimena eman behar du.

9. artikulua. — Behin-behinean estalitako instalazioen mugak

Alkatetzak behar den modura funtsatutako erabakiaren bidez, ez du baimenik emango estaltzeko ondoko kasu hauetan:

- a) Bide-segurtasunerako arriskua izatea (ikusgarritasuna txikiagotzea, gidarientzako distrazioa, e.a.) edo oinezkoen trafikoa oztopatzea.
- b) Alboko eraikinetako eta lokaletako segurtasunaren kalterako denean (ebakuzioa).
- c) Ezegokia gertatzen bada, inguruarekin bat ez badator edo hiriko paisaiatzeko aukera kentzen badu.

9.bis artikulua. — Egitura finko bidezko estalkia

1. Estalki finko bat jartzeko asmoa izanez gero, mugatutako espazioa erraz ken daitezkeen behin-behineko elementuekin estali ahal izango da. Lurrera josiak egon daitezke eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Zutikoak edo gutxi gorabehera lau (4) metro bereizitako euskarriak izango dituzte.
- b) Estalkiak, gehienez, 3,20 metroko altuera izango du.
- c) Estalkiaren instalazioan irteten diren elementuen beheko ertza berrehun eta hoge (220) zentimetro baino altuagoa izango da.
- d) Instalazioaren alboetako babesek edo perimetrokek nahitaez josita egongo dira aparkatzeko lerroa hartzen duenean eta ibilgailuen zirkulaziotik bereizten duenean. Bi terraza banatzeko ere alboetako babesak jarriko dira.
- e) Terrazak instalatzeko mugak desberdinak izan daitezke:
 - Lorontzi-euskarrietan jarritako landareak, oinarri egonkor eta sendoa izanik egonkortasuna bermatzeko.
 - Elementu itsu, zeharrargi eta garden bitartez eraikitako manparak, elementua hor dagoela identifikatzeko lerro horizontal bat ezarri goiko muturrean. Elementu hauek 1,00 metro baino altuago eta 1,5 metro baino txikiagoak izango dira, beti ere ostalaritzako jarduera dagoen lokalaren gertueneko terrazaren aldea libre utziz. Alde itsua ezingo da 0,80 metro baino handiagoa izan eta altueraren gainerako tokian zeharrargitsuak edo gardenak izan beharko dira.



- Alboetako eta perimetroko babesak lurrera josteko berariazko baimenik ez dutenak kendu egin beharko dira egunero gainerako altzariekin batera.
2. Estalki finkoetarako hiru egitura mota identifikatu dira:
 - a) Ate motakoak. Atari bakarreko egitura bat da, «portería». Egitura horretatik zintzilik jartzen da eguzki-oihal bi bakoitza alde batera, dagokion espazioa estaltzeko.
 - b) Markesina motakoak. Alderantziz jarritako L baten formako egitura; hainbat atarik osatzen dute. Eguzki-oihal bat edo material zeharrargitsua jartzen da gainean. Luzera alde bat goitik behera itxita izan dezakete, material gardenez.
 - c) Sare formakoak. Sare formako egitura bat da, normalean laukizuzena, zutikoen eta bigek osatutakoa. Horiek isurki bat edo gehiagoko estalki inklinatu bati eusten diote, gainean olana edo material zeharrargia duenari, hain zuzen.
 3. Egitura egonkor bidezko estalkiak zutabeak edo egitura bertikala alboko eraikinaren beheko solairuko fatxadaren lerrotik 4 metro bereizten badira bakarrik jarri ahal izango dira. Estalkia, eraikinaren fatxadaren lerrotik gutxienez 2 metrora egongo da, eraikinaren jabeek gertuago jartzeko baimenik ematen ez badute behintzat.
 4. Estalkiek, gainera, diseinu irekia izango dute. Ikusmen-iragazkortasunak lehen-tasuna izango du eta ez dira hiriaren pertzepziorako eragozpen izango eta ez dute edukiontzi konpaktu gisa funtzionatuko. Egituraren elementuak, ahal dela, altzairuzkoak (herdoilgaitza, burdinurtua...) izango dira eta akaberan pintura izanez gero, pintura oxiron motakoa edo hiriko espazioko altzarietarako esleitutakoa izango da. Horretarako, eskaerarekin batera instalazio-proiektua eta eragina ebaluatzeko behar diren infografiak ere aurkeztu beharko dira.
 5. Estalki egonkorak lurrera josi gabe instalatu ahal izango dira egonkorak direla eta ez direla mugitzen bermatzen bada.
 6. Eskumena duen Udal agintariak atzera botako ditu egitura egonkorreko estalkia jartzeko eskaerak ondorengo kasu hauetan:
 - a) bideko segurtasunari kalte egiten diotenean (ikusgarritasuna murriztea, gidariei arreta galaraztea etab.) edo oinezkoen zirkulazioa zailtzen duenean.
 - b) toki batek hainbat erabilera ditutenean, urtean zehar toki horretan hainbat ekitaldi eta/edo jarduera egiten direnean eta horiek egiteko lurrera jositako egiturak instalatzea komeni ez denean.
 - c) inguruko eraikinen eta lokalen segurtasuna arriskuan jar dezaketenean (eraikina husteko, etab.).
 - d) formalki desegokia denean edo inguruarekin bat ez datorrenean edo hiriko pasia behar bezala irakurtzea zailtzen duenean.
 - e) jabetza pribatuko eta erabilera publikoko espazioetan jarri nahi direnean.
 7. Estalki egonkorra jartzeko proiektuak terraza-eremu baimengarrietan bakarrik baimenduko dira eta ez dituzte luzeran 12 metro eta zabalean 4,80 metro gaindituko.
- Egin nahi den instalazioak ostalaritzako jarduera egiten duen lokalaren fatxadaren luzera gainditzen duenean eta bide publikotik beste lokal komertzial bat ondo ikustea zail dezakeenean, eragina jasango duten lokal horietako titularren adostasuna lortu dela egiaztatu beharko da. Ostalaritzako terrazaren aldameneko lokalaren edo lokaren baimena egiaztatzeko, jardueraren titularrak sinatutako agiri bat aurkeztu beharko da. Izen-abizenak edo izen soziala, NAN edo IFK, helbidea eta egiten duen jardueraren baimenaren erreferentzia eta terraza jartzeko denboraldi osorako baimena ematen dela dioen adierazpena aurkeztu beharko dira.

10. artikulua. — Instalazioak ipinita dauden kaleetan automobilak dabiltzala

1. Instalazioa: Instalazio bakoitzak dagokion baimena behar du. Zirkulazio-kaleetan mahaiak jarri ahal izango dira baina espaloia libre lagata trabarik ez egiteko moduan, mahaiak ipinita zein kenduta daudela.



2. Luzera: Instalazioak luzera-muga bat edukiko du, alboetako babes eta lorontziak badaude ere, gehienez, establezimenduko fatxadaren besteko luzera izan dezake. Establezimenduaren ingurukoek idatziz baimena eman badiote luzeago izan daiteke, baina, inongo kasutan ere ez hamar (10) metro baino luzeago.

3. Okupazioa: Trafikoa eta garraio publikoa ezin dira oztopatu inoiz.

11. artikulua.— Oinezkoentzako kaleak

1. Horrelako instalazioak oinezkoentzako kale batean jarri ahal izateko derrigorrezkoa da lau (4) metroko kalea edo hortik gorako zabalerakoa izatea, eta bi (2) metro zabal baino gehiago okupatu gabe laga behar da.

2. Instalazioa mugatu eta alboetatik babestuko da 6. artikuluan aurreikusitako eran.

3. Zapatu domeketan oinezko bihurtzen diren kaleetan irizpide berak erabiliko dira. Hala eskatzen denean berehala kendu beharko dira instalazioak (desfileak...).

12. artikulua.— Plazak eta gune libreak

1. Espazio hauetan mahaiak eta terrazak instalatzeko baimena eman baino lehen eskaera bakoitzaren berezitasuna kontuan izango da muga nagusi hauen arabera:

- a) Gehienezko luzera etengabea, hamabi (12) metrokoa.
- b) Gehienezko zabalera, mahaiez osatutako hiru (3) errenkada, fatxadaren planoarekiko paralelo.
- c) Inolako oztoporik gabe oinezkoak pasa daitezen, lau (4) metro baino gehiago libre laga behar dira.
- d) Mugakideek, instalazioa aurrez aurre edukiz gero, baimena idatziz behar dute eman.
- e) Alboko lokaletara eta atarietara edozein momentutan sartu eta irten ahal izatea.

2. Instalazio hauetako alboak mugatu eta babestu nahi izatekotan, 5. artikuluan aurreikusi den moduan egin behar da.

12.bis artikulua.— Espazio inklinatuak eta aparkatzeko espazioak okupatzeko oholtzak

1. % 6tik gorako malda dagoen espazioetan terrazen azaleraren zati bat edo azalera osorik altxatzen duten oholtzak, taulak edo plataformak jarri ahal izango dira, instalazioa mailakatu behar duten tokietan edo aparkatzeko tokietan terraza jartzea baimendu daitekeenetan, lurra espaloia mailara altxatzeko.

2. Oholtza egiteko erabilitako materialek instalatuta egongo den aldiaren behar bezala erabiltzeko bezain sendoak eta ez irristatzeko modukoak izan beharko dute. Diseinu eta tratamendu kromatiko bateratua izan beharko du, inguru horretarako egokia.

3. Oholtzak edo plataformak, aparkalekuen gainean terrazak instalatzeko erabiltzen badira, ondorengo ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Plataforma luzetara jarriko da espaloia ertzaren alboan eta bidearen ertzera eta alboko plazetara, gutxienez 30 cm-ko distantzia izango du.
- Oholtza ura husteko sistemarekin egin beharko da eta sistema horrek ez dio trabarik egin beharko urbanizazioan lehendik dagoen bilketa-sistemari.
- Perimetroko babes josia izango du, hartutako gunea babesteko. Perimetroko babesaren ordean baranda bat jarri ahal izango da.
- Horretarako egokitutako espazioan altzariak eta eguzkitakoak jarri ahal izango dira.
- Eguzkitakoek hartzen duten tokiak ezingo du, inolaz ere, bidea hartu, ezta inguruko aparkalekuena ere.
- Horrelakoetan, ezin da egitura egonkorreko estalkirik jarri.

**13. artikulua.— *Interes publikoko arrazoien araberako debekuak***

Interes publikoagatik, Alkatetzak behar den modura funtsatutako erabakiaren bidez, debeka dezake instalazioa, hau da, terrazak eta osagarriak ipintzeko debekua haren esku dago interes publikoaren mesedetan, kasu batzuetan: bidearen tajuketa, kokagunea, segurtasuna, herrilanak, edo beste arrazoi batzuegatik.

III. KAPITULUA

**BAIMENA EMATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:
ESKAERA-ORRIA ETA TRAMITAZIOA****14. artikulua.— *Udal lizentzia***

1. Terrazak eta hauen elementu osagarriak (mahaitxo txikiak, kupelak, banku luzeak...) instalatu baino lehen udalaren baimena beharko da.

2. Baimena lortzeko, eskaera-orri bat aurkeztu behar dio interesatuak Alkateari Erregistro Orokorrean, eta orriarekin batera ondoko artikuluan adierazitako agiriak ere bai. Eskaera-orrian hauxe adierazi beharko du:

- a) Eskatzailearen izena eta bi abizenak.
- b) Helbidea, telefonoa eta N.A.N.
- c) Jardueraren izena eta tokia.
- d) Jarduerari buruzko datuak (lizentzia fiskala, I.F.K., e.a.).
- e) Instalazioa jartzeko epea.

15. artikulua.— *Aurkeztu behar diren agiriak*

Eskaera-orriarekin batera, interesatuak honako agiri hauek ere aurkeztu behar ditu:

1. Jarduerarako udalak emandako baimena (jarduerako edota irekitzeko lizentzia).

2. Behar den kasuetan, ondoko lokalen baimena (10.2 eta 12.1.c. artikuluetan aurreikusitako kasuetan) eta jabe-komunitatearen baimena (8. artikuluan).

3. Instalatzeko proiektua: Eskaerarekin batera instalatzeko proiektua ere aurkeztu behar da, gutxienez, hauxe jaso beharko du:

- a) Lokaleko kokapen-planoa, 1:500 eskalako, bertan hauxe zehaztu beharko da: instalazioak okupatu behar duen azalera, fatxadaren luzera eta oinezkoiei libre geratzen zaien pasabidearen zabalera, traba finkoak daudenean (trafiko-seinaleak, zuhaitzak, jarlekuak, hiriko altzariak, e.a.) eta ukitu daitezkeen udal zerbitzuak (ura, saneamendua...) badaude ere agertu egin behar dira.
- b) Plano zehatza, 1:50 eskalako, bertan zehaztu beharko da, batetik, instalazioak ukituko duen bide publikoko zatia, eta bestetik, mahaiak, aulkiak, alboetako babesak, lorontziak eta eguzkitakoak nola jarriko diren (proiektzio horizontala egin da).

4. Toldoak fatxadatik bertatik ipini nahi izatekotan, aurrekoen gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu: krokis bat instalazioaren neurriak, ezaugarri teknikoak eta estetikoak adieraziz, arloko Tekniko eskudunak egindako Ziurtagiria egituraren segurtasunari buruz eta Instalazioko erantzukizun zibilaren aseguruia.

16. artikulua.— *Erabakia*

Ordenantzak exijitutako moduan eskaera egin eta gero, beharrezkoa da txosten teknikoa eta juridikoa egitea, ondoren, Alkatetzak erabakia hartuko du, legeak finkatutako epean.

17. artikulua.— *Lizentziaren baldintzak*

1. Emandako lizentziak jabetza eskubidearen eta hirugarrenen kalterik gabe eman direla ulertuko da beti. Onuradunak bere jarduera burutzean eragindako erantzukizun zibila edo penala baliogabetzeko edo arintzeko ezin izango du lizentzia inbokatu. Edozein kasutan ez dute bere titularrak bestelako baimenak eskatzearen beharra kanpo uzten.



2. Lizentzia-agiriak jasoko ditu instalazioak bete beharreko baldintzak, hala nola: okupatu behar duen azalera, emakidaren indarraldia eta beharrezko iriztitako beste bezitasun batzuk.

3. Lizentzia beti prekariora denez gero, Alkatetzaren esku dago baimendutako instalazioak kaletik kentzeko agindua ematea zenbait kasutan: trafiko edo urbanizazio arrazoiengatik, edo guztien intereseko beste edozein arrazoiengatik. Kendu ere partikularren kontura eta inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, ondo arrazoituta eta interesatuari entzun eta gero hartu beharko du erabakia.

4. Lizentziaren titularrari dagokio instalazioak kalean eragin ditzakeen kalte guztiak konpontzea.

18. artikulua.— Indarraldia

1. Lizentziak behin-behingoak izango dira, eta iraupena ondoren aipatzen den arau-tegiaren arabera: «Udal jabari publikoan dirua irabazteko asmoaz mahaiak eta aulkiak jartzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala».

2. Lizentziaren hasiera-amaierak ez du etenik izango.

3. Epea amaitutakoan lizentziaren titularrak edo, hala badagokio, establezimendua-ren titularrak kendu egin beharko du instalazioa eta kalea zegoen bezala laga.

4. Ostalaritza jardueraren titularrak ezer esaten ez badu, udalak, urtero, baimena-ren berriztatze automatikoa egingo du, aurreko urteko baldintza berdinetan. Aldaketak egin nahi izanez gero, titularrak, gutxienez, hilabete bateko (1) aurrerapenarekin egin beharko du eskaera.

19. artikulua.— Funtzionamendu-orduak

1. Jarduera nagusiak baimenduta duen ordutegia aintzat hartu gabe, terrazen erabilpenerako ordutegia hauxe izango da:

— Astelehenetik eguenera eta domeketan 9ak eta 23ak bitarteko denbora-epera mugatua gelditzen da.

— Barikuetan, zapatuetan, jai egun bezperan, eta uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte, ordubete gehiago luzatu ahal izango delarik, hau da, gaueko 12ak arte.

— abuztuan herriko jai egunetan, gaueko ordu biak arte.

2. Egunero instalazioak erretiratu egin behar dira.

20. artikulua.— Azalera betegarriaren mugaketa

1. Azalera betegarriaren mugaketa udal lizentziari atxikitako plano akotatuaren arabera egingo da.

2. Lizentzia hartu bezain laster titularra udal zerbitzu teknikoekin jarriko da harremanetan. Hauek mugatuko dute, tokian bertan daudela, baimenaz okupatu daitekeen gehienezko azalera. Bertan jarriko dira mahaiak eta aulkiak eta ikusiko da zenbat sartzin diren. Ezingo da baimendutako baino mahai eta aulki gehiago ipini.

3. Okupatu daitekeen toki mugatu hori lurrean bertan markatuko dute. Muga-markak ezin izango dira aldatu eta kentzeko ere udalaren baimena beharko da.

4. Mugatutako aldea ezin da gainditu, ezin da ondoko espazioan mahairik edo aulkirik jarri. Establezimenduaren titularrari dagokio jarritako mugak betetzea, erantzulea ere bera izango da.

21. artikulua.— Instalazioaren titularrak bete beharrekoak

1. Instalazioaren titularrak garbitasun, segurtasun eta apaindura aldetik behar bezalako baldintzetan mantendu beharko ditu, bai okupatu dezakeen lurzorua bai instalazioa bera eta baita honen osagarriak ere, horretarako behar beste bitarteko jarri beharko ditu, paperontziak, hautsontziak, e.a. Gainontzeko betebeharrak orokorrak eta Ordenantza honetatik eratorritako betebeharrak kaltetu gabe.



2. Lizentziaren titularra terrazaren funtzionamendu eta erabilpenak sortaraziko zaraten arautegien arau-hauste guztien erantzule da.
3. Instalazioaren titularrak tasak ordainduko dizkio Udalari, eta hala badagozki, beste ordainarazpen batzuk ere, dagokion Ordenantza Fiskalak finkatua ditu tasen zenbatekoa eta ordaintzeko modua.
4. Titularrak bere kontura ordaindu beharko ditu bere jarduerak sortaraziko edo betetako espazio publikoan kaltetuta suertatutako elementuen konponketaren zenbatekoa.
5. Bestaldetik, titularra instalazioaren erabilpen arrunta edo ez arruntagatik sortaraziko gaitz-kalte guztien, istripuen, ezbeharren, e.a. erantzule izango da, dagokion erantzukizun zibila bere gain hartuz.
6. Terrazetan eta tabernen kanpo aldean erabiltzen diren mahai, aulki, banku eta altzariak oro har, jarduera ordutegia amaitzean jaso egin beharko dira eta establezimendu barruan edo beste lokalen batean gorde. Modu honetan gordetzeko zailtasunak badaude, Udalak baimena eman dezake altzariok kalean bilduta uzteko Udalak horretako mugatutako lekuetan, eta oinezkoen joan-etorria ez oztopatzeko moduan.
7. Terraza jartzeko ezingo da kaltetu udal ondasunik, obrarik edo zerbitzu prestaziorik. Terraza batu ondoren, instalazioaren eraginez zoladura hondatu bada, astebeteko epean gehienez berrezarri beharko da.
8. Bete beharrok betetzen ez badira, eta dagokion zigorra eragotzi gabe, Udalak, sortutako kaltea, arau haustearen intentsitatea edo debekuan zein obligazioa ez betetzean berrerortzearen maiztasuna ikusita, terraza baimena kendu dezake.
9. Ostalaritza jardueraren titularrak lokalaren atean edo erakusleihoan ipiniko du udal lizentziaren kopia bat, espazio publikotik ikusteko moduan.

IV. KAPITULUA

ZIGORREN ARAUBIDEA

22. artikulua.— Udal lizentziarik gabeko instalazioak

1. Alkatetzak berehala kendu ahal izango ditu kalean lizentzia barik ipini diren mahaiak eta terrazak, udal biltegieta gordeko ditu kendutakoak. Hori guztia, arauzko zigorrak ezarri ahal izateko kalterik gabe.
2. Bidezkoa denean zigor-espediente bat tramitatzea, instalazio osoa desmuntatuta eta kenduta egon arren ere, arau bidez, ondorengo zigorrak ezarri ahal izango dira:
 - a) Ordenantza honetan jasotako isunak.
 - b) Gertakarien larritasunaren arabera gaitasun gabetu egingo da establezimendua, Ordenantza honek arautako baimenak eskuratzeko, gehienez bi urte arteko epean. Hau zigor hau eta aurrekoa, biak batera ezarri ahal izango dira.
3. Ostera, horren ondoren instalazioa legezztatzen bada, zigorra, besterik gabe, ekonomikoa izango da, udalak egindako eskakizunei uko egin ez bazaie behin eta berri, behintzat.
4. Lizentziako azken eguna pasa eta gero, terrazak eta mahaiak oraindik kendu ez badira, udal baimenik izango ez balute bezala zigortuko da, hau da, artikulutan jasotako diziplina-arauak ezarriko dira.

23. artikulua.— Baldintzak ez betetzea

1. Emandako baimenaren baldintzak edo Ordenantza honen aginduak bete ez izanak honako zigorrak ekarriko ditu, kasu bakoitzean dagokiona:
 - a) Isuna, ordenantza honen arabera.
 - b) Lizentzia indargabetzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea, udalak egindako eskakizun bati jaramonik ez egitekotan.
 - c) Baldintzak behin eta berri ez betetzekotan, Ordenantza honek araututako baimenak eskuratzeko establezimendua gaitasun-gabetzea, gehienez bi urterako.

**24. artikulua.—Arau-hausteen sailkapena**

Ordenantza honetako arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

1. Arau-hauste arinak dira:
 - a) Instalazioaren edo bere inguruaren apaindura- edo garbitasun-falta.
 - b) Hasierako zein amaierako ordutegia ez betetzea, ordu-erdiatik beherako aldearekin.
 - c) Lizentzia-dokumentua eta xehetasun-planoa ez aurkeztea eskatzen duten agintaritza-agenteei edo funtzionario eskudunei.
 - d) Terrazaren zonan edo bide publikoko beste edozein espazio okupatutan produktua, ontziak edo hondakinak biltegitzea edo pilatzea.
 - e) Terrazak hartzen duen bide publiko edo espaloi zatia garbi ez edukitzea.
 - f) Terrazarako elementu guztiak garbi eta txukun ez edukitzea.
 - g) Eguneko jarduna amaitu ondoren jaso behar diren altzari eta gainerako elementuak horretarako dauden lekuetan ez jasotzea.
 - h) Ordenantza honetan aurreikusitako beste edozein betebeharrak ez betetzea, arau-hauste larria edo oso larria ez bada.
2. Arau-hauste larriak dira:
 - a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin egitea.
 - b) Hasierako zein amaierako ordutegia ez betetzea, ordu-erdi eta ordubete arteko aldearekin.
 - c) Lizentzian aurreikusten ez diren hiri-altzarien elementuak jartzea edo altzari horien baimendutako kopuruak gainditzea.
 - d) Baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea edo beste mugaketa-baldintza batzuk ez betetzea.
 - e) Nahitaezko asegururik ez izatea.
 - f) Bizilagunei edo iragaitzazko bidariei instalazioaren funtzionamendutik eratorritako eragozpen egiaztatuak sortzea.
 - g) Baimendu gabeko musika-instrumentu zein - ekipamenduak edo bestelako instalazioak jartzea.
 - h) Baimendutako elementuak egunero kentzeko betebeharrak ez betetzea.
3. Arau-hauste oso larriak dira:
 - a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste larri egitea.
 - b) Terrazak, edo ordenantza honetan araututako bestelako elementuak, baimenik gabe edo baimendutako epetik kanpo jartzea.
 - c) Instalazioa berehala eteteko agindua ez betetzea.
 - d) Bizilagunei edo iragaitzazko bidariei instalazioaren funtzionamendutik eratorritako eragozpen egiaztatuak sortzea, ordenantza honetan ezarritako baldintzak behin eta berriro eta modu larrian ez betetzeagatik.
 - e) Espresuki baimendu gabeko ikuskizun edo emanaldiak egitea.
 - f) Funtzionarioei edo agintaritza-agenteei begirunerik ez izatea, beren karguari hala dagokiolako esku hartzen dutenean, edo beren ikuskatze-lanak ukatzea edo oztopatzea.
 - g) Hasierako zein amaierako ordutegia ez betetzea, ordubetetik gorako aldearekin.

25. artikulua.—Zehapenak

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustek zehapen hauek ekarriko dituzte:

- a) Arau-hauste arinak 301 eurora arteko isunarekin zigortuko dira.
- b) Arau-hauste larriak 301,01 eta 902 euro arteko isunarekin zigortuko dira.
- c) Arau-hauste oso larriak 902,01 eta 1.803 euro arteko isunarekin.



Zigor hauek ez dute eragozten Udalak, sortutako kaltea, arau haustearen intentsitatea edo debekuan zein obligazioa ez betetzean berrerortzearen maiztasuna ikusita, terraza baimena kentzea.

26. artikulua.— Exekuzio subsidiarioa

Ordenantza honetan aipatutako kasuetan, instalazioaren arduradunak kalean jarrita dituen elementuak kentzeko agintzen duen udal aginduari jaramonik egingo ez balio, elementu horiek kendu egingo dira eta udal biltegian utziko, biltegitik jasotzeko jabeak dagozkion tasak ordaindu beharko ditu.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Une honetan terraza baimena duten establezimenduek Ordenantza honetara egokitzeko hiru hilabeteko epea izango dute Ordenantza publikatu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENAK**Lehena**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia oso-osorik argitaratu ondorengo 15 lanegun igarota sartuko da indarrean Ordenantza hau.

Bigarrena

Alkatetzari berriazko baimena ematen zaio, honako Ordenantza hau interpretatzeko, argitzeko eta garatzeko, administrazio-prozedura orokorrari buruzko indarreko legerian bildutako abiaburuen arabera.